

gaurkoa

Horixe da hitza. Madrigo Gobernuaren ez da «zirikatzen» ari. Ez. Hitz hori leunegia izango litzateke gaur.

Madril probokatu egiten ari da goitik behera.

Egoera horrek ez du arreakaririk. Kondairan atzera, 1937raino joan behar da horrelako eraso lotsagaldurik aurkitzeko.

Lerro hauek idazten ditugun une honetanxe entzun dugunez, denaz gain, Ibarretxeren plana izapidetzearen aurka sartu du helegitea PSOEek, Arensen eskutik. Eta PPK, noski, «arbuio osoa eta orokorra» adierazi du, neurri guztiak aldarrikatuz aurrera jo ez dezan.

Lehen ETA zen etsaia. Orain nabarmen ageri da Euskal Herriari ebaki nahi zaiola burua.

Eromatar atsotitza gidari hartuz, «zatika ezak eta garaitu egingo duk».

Alde batetik, hor ditugu Rabanera eta Alonso falangistak, eskuz esku, amorrurri erabiatuan Araba Euskal Herriatik bereziki nahian.

Bestetik, Nafarroa. Sanzek ez du disimulatzen (eta Lizarbek eta Allik ere ez). Eta «*hay que salvar la personalidad diferenciada de Navarra*», eta antzeko ipuinak zozoentzat hedatuz, helburua garbi uzten dute: Nafarroa Euskal Herriatik at eta bere aurka jartzea.

Mozorroak erori dira. Panorama nabarmen agertzen zaigu azaro historiko honetan. Fartsak, kito.

Lehen hau esaten zigten: «*ETA es una banda de asesinos, sin respaldo popular, ni móvil político alguno. Matan porque no saben hacer otra cosa*».

Orain, berriz, beste hau: «*Detrás del plan Ibarretxe está la ETA separatista de siempre*».

Zertan gara?

Alde batetik, lurraldetasuna txikitu. Bestetik, Ibarretxe ETArekin aginduetan

Jose Luis Alvarez Enparanza, «Txillardegi» • Idazlea



Probokatzen ari

ra ari da jokatzek.

Baina hori ez da aski. Euskal Herria Erdal Herria bihurtu behar da, eta euskara betiko lurperatu. Herri bati bere hizkuntza kentzen bazaio, eta okupatzaileena inposatzen, partida irabazita baitago.

Otsaileko atxiloketek, eta aste honetan bertan Xabier Oleagak aurreikusi

dituenek, argitu egin behar gintuzkete kinka ezin larriago honetan.

PP eta PSOE eskuz esku ari dira; eta nazionalista espainolek, batera, txalo eta txalo.

Kontseiluak argiro adierazi du: euskaldunok elkar-turik, kementsu erantzun beharko dugula.

Ez dela ezer berririk

gertatzen? Otoi! Ez barre-garri izan!

Mende laurden bat irauan duen epealdia bukatu da.

Fase bat amaitu da. Hau bete-betean ulertuko ez dugunok, jai.

«*No pasa nada. Esto es lo de siempre. Eutsi goiari!*».

Ez, mesedez.

Alderdi politiko guztiek dituzte barne arazo la-

riak. Bai gureak, eta bai espainiarrenak. Eta Bushekek aurki bere agintea galduta (hala biz!), nora jo behar du bibotedunak?

Eskema zaharrek ez digute jadanik balio. 1975ean bidezko izan ziren estrategiek, gaur amildegira eramango gintuzteke.

Madrilek badaki. Hau ez Txetxenia, ez Palestina,

Madrilek probokatu egiten gaitu. Bide egokia har ez dezagun. Herri hau, Nafarroa oinarri, Auto-Determinazioaren bidez aurrera atera nahi dugun guztiok behar dugu elkar hartu. Eta irmoki, ausarki, borroka zibila luze baterako geure burua antolatu. Ez dugu beste biderik

eta ez Irak, ez delako, probokatu egiten gaitu. Bide egokia har ez dezagun.

Herri hau, Nafarroa oinarri, Auto-Determinazioaren bidez aurrera atera nahi dugun guztiok behar dugu elkar hartu.

Eta irmoki, ausarki, borroka zibila luze baterako geure burua antolatu.

Ez dugu beste biderik. •

koma

Clausewitz

La maquinaria pesada del Estado se pone en marcha para bloquear el desarrollo del Plan Ibarretxe. Empieza, pues, la contraofensiva del nacionalismo español. La única incógnita por despejar es saber si Ibarretxe y los suyos aguantarán en la trinchera o si, ¡ay, la experiencia!, veremos un ordenado repliegue de filas en dirección contraria al frente. Lean a • Clausewitz...

Olaso

jo puntua

Hasier Etxeberria • Idazlea

Lilurarik ez

Patri maitea, inork ez du esaten hemen, zer egin behar den ametsak ezinezko direnean. Amets egite bera ere debekatzeko zaionean, zein bide geratzen zaion norbanakoari eta gizarteari. Horretaz, oraingoz, ez du inork lutzik egiten. Badaezpada.

Lilura pitzaturik gabe genuen garaian, edozer zela libre uste genuen inuzenteok. Ametsa zen eguneroko gasolina obikoena. Auza gure liluraren baitako partaide egin eta kito. Horixe zuen baldintza bakarra ametsaren gauzatzek. Inor behartu gabe, desirak gortetzen duen berezko logikaz auzokoa geuretatu. Eta, eskutik edo sorbalda-tik helduta, denok batera emango genuela pausok aurrera anaiarteko ikaragarri. Elkarren ondoan, elkarrekin eta batera iritsiko ginela ametsetako lekura. Horixe baitzen baldintza liluratzek: elkarren artean

konpotea. Ez besterik.

Orduan egin ginen ez eta biok demokratik. Demokratik sutsu. Orduan arte, ez ginen ezer izan, ezin izan genuen ezer izan, gainera etortzen zitzaigun zaparrada guztiaren menpeko baino. Inprobisazioa eta sena izaten genuen jokabide. Oroitzen zara diktadurapeko nerabezaro zoro hartaz? Ilunpe erabatekoa bizi izan duenak bakarrik daki zenbat poztu duen argi izpiarentzat zabal-tzen duen zirrikituak.

Demokraziaren berezko akatsak, Demokraziaren barnetik konpunduko zirela uste genuen. Askiz zela akatsa agerian jartzea, ebidentziarik irabaz zezan. Azken finean, ez-jakintasunaren eta enorantziaren kontrako borroka aski izango zela bidegabekeriari bide behingoz ixteko. Demokraziaren beraren izenean.



Bisran da, ordea, Utopiaren porrotaren ostean, Praxiak ere egin digula kale. Jada ez daukala zentzurik Demokrazia honi estu loturik aurrera egitea. Ageriko bidegabekeria ekiditen ez duen Demokrazia ez baita ezer. Ametsi buruz berba egitea ere zigortzen duen Demokraziak ez baitu horrelako izenik merezi.

Maltzur jokatu behar da hemen, Patri. Txikiaren estrategia erabili. Goliathen indarrak ezean, Daviden harria behar da erabili. Tarte ondo neurtu, nola jaurti erabaki, eta dzzast! Ez dago beste biderik. Ezin dugu denok elkarrekin eta batera aurrera egin. Bistako da hori.

Ezin gara maite ez gaituenarekin ezkondu. Bai, badakit bainbeste aldirerrikaz asperrak ere gerta naitekeela, baina, zer nahi duzu? Ez dago beste biderik. Elkar maitatzeko gai garenok egin behar dugu aurrera, besteen gorrotoko konpoteari utzita. Lan horrek ez baitauka atarmentu onik. Geuk egin behar dugu aurrera, Patri, kosta ahala kosta. Ametsik ezin eginda, zeharo erotu, gaitzotu eta gal ez gaitzen, Patri bihotzkoa. •